muy clara: los proyectos serán más ricos si se pregunta a la gente". Además de eso, hay una cuestión de fundamento democrático y es que se alcanzó un 50% de abstención, lo que demuestra que la ciudadanía está alejada de la acción política. Ante esa constatación, Val de Marne afrontó una reflexión y la ponente señaló que "se llegó a la conclusión de que había que fomentar la democracia participativa para mejorar la vida democrática y para mejorar la eficacia de las políticas públicas". Junto a ello, se dieron cuenta de que "son las instituciones las que deben cambiar, no los ciudadanos".

Para conseguir esos objetivos, según Abraham-Thisse "había que impulsar también una nueva cultura política, donde el eje sería complementar con la democracia participativa la democracia representativa". Eso implicaba que tuvieran que "cambiar los procesos de trabajo y las relaciones políticos-funcionarios-ciudadanos". No obstante, no significa, según ella, que "el político pierda la obligación de tomar decisiones. Cuando el político pregunta, el objetivo es que pueda confrontar todos los puntos de vista posibles antes de tomar una decisión".

Un reto importante según la representante política gala, "es conseguir implicar a todos los departamentos sectoriales del Consejo de Val de Marne". Porque la decisión de la presidencia del Consejo de impulsar la democracia participativa conllevó a que cada unidad asumiera la responsabilidad de impulsar procesos participativos en su ámbito de actuación. A esa dificultad hay que añadirle que como bien afirma Abraham-Thisse, "trabajar la democracia participativa cuesta más dinero, supone más trabajo y es más lento".

La Consejera General de Proyectos Europeos terminó su intervención con la conclusión de que "la democracia participativa, es sobre todo, un método de trabajo". A continuación cogió la palabra su colaboradora Aline Guerin para hablar de las iniciativas más concretas que se han desarrollado y se están desarrollando. Entre otras iniciativas habló sobre las siguientes:

- Se ha hecho un análisis con todos los departamentos. Se ha recibido un 50% de respuesta favorable.
- Seminario para los equipos de electos de los departamentos. Sensibilizar y formar, las mismas palabras pueden significar diferentes cosas.
- "Rencontres de la démocratie participative". Se ha invitado a las asociaciones y asambleas de barrios a presentarse unos a otros -feria de asociaciones-.
- "Atelier citoyen". Foro para analizar qué puede hacer el Consejo General para impulsar la participación de los ciudadanos.
- Elaboración de la "Charte de la démocratie participative" en la que se reflejan las razones de la iniciativa,

“
Detrás del impulso de la
democracia participativa en Val
de Marne hay una decisión
política con una convicción muy
clara: los proyectos serán más
ricos si se pregunta a la gente.”

qué medios se van a dedicar, qué reglas de juego, etc.

- Iniciativas singulares: Conseil des Collégiens, Plan Bleu, Consejo de Guarderías.

En ellas participaron según Guerin "tres tipos de grupos: ciudadanos, profesionales y electos. Todos no tenían la misma opinión, pero sí coincidieron en la necesidad de impulsar iniciativas de democracia participativa".

En la parte final de su intervención, la responsable del proyecto destacó la importancia de "buscar la representatividad adecuada en cada proceso de participación". Han constatado que es más importante "ser conscientes, de quiénes faltan y no tanto de quiénes están. Por ejemplo, en el caso de la participación de padres en las escuelas, normalmente quienes acuden son los padres cuyos hijos menos problemas tienen". Por ello, es muy importante que "no sean siempre los mismos los que participen y que se impulse la participación de todos".

Las representantes del Consejo General de Val de Marne, a modo de conclusión, expusieron tres ideas fundamentales al final de su ponencia:

- "La democracia participativa debe ser lo más cercana posible al ciudadano".
- "La democracia participativa es una herramienta que permite repartir responsabilidades y aumenta la confianza, la paz y la cohesión social".
- "La democracia participativa y la democracia representativa se complementan mutuamente".

La experiencia de participación ciudadana en Cataluña, por Fernando Pindado.

Antes de entrar de lleno a explicar la experiencia de la Generalitat de Cataluña en participación ciudadana, Pindado quiso primero, situar el término 'participación'. Empezó reflexionando acerca de la relación entre democracia y participación. "¿Es que es diferente la democracia de la participación? ¿Es que puede haber democracia sin participación? ¿Es que puede haber participación sin democracia?" Formuló estas preguntas para terminar respondiendo que "en el fondo estamos hablando de ese sistema político que se basa en la soberanía del pueblo". En base a esa soberanía se constituyen, según afirmó, "las instituciones; pero se ha de recordar que sólo hay un sistema político que se llama democracia".

Para profundizar más en el concepto de la política, empleó la definición dada por el diccionario de la Real Academia de la Lengua Española: "actividad de los ciudadanos cuando intervienen en los asuntos públicos mediante su opinión, su voto o cualquier otro medio". De ahí concluyó que "la política en un sistema democrático se basa en la actividad ciudadana". Pero Pindado opina que "se ha pro-

calidad democrática en la institución, si no hay calidad democrática en la sociedad”.

El Subdirector general de participación en el ámbito local de la Generalitat de Catalunya terminó su ponencia defen-

diendo y subrayando la necesidad de la participación ciudadana. “Esto tiene dificultades, no es fácil, no se hace sólo, cuesta dinero, hay que buscar referencias... pero tiene una ventaja, quien prueba, repite”.



GIZARTE ZERBITZUEN KUDEAKETARAKO ADIERAZLEEN-SISTEMA ALDERAGARRIA NOLA EZARRI

ITZIAR AZKUE IRIGOYEN

AGUSTIN ERKIZIA OLAIZOLA

ERRAPEL IBARLOZA ARRIZABALAGA

EDUARDO MALLES FERNÁNDEZ

UPV/EHUko Finantza Ekonomia I saileko irakasleak

Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola-Donostia

HELIO ROBLEDA CABEZAS

Enpresa eta Ekonomia Zientzien Fakultateko katedraduna

Nafarroako Unibertsitate Publikoau

En aras a la mejora de una metodología para el cálculo de indicadores que informen sobre la actividad, los costes y las características del entorno municipal, un grupo de investigación de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y de la Universidad Pública de Navarra ha dado los primeros pasos en la implantación de un modelo de indicadores para la comparabilidad de la gestión de los Servicios Sociales en seis ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País de Vasco.

El trabajo realizado ha consistido en una puesta en común de indicadores (“benchmarking”), entre responsables e investigadores, para la mejora de la gestión municipal en el ámbito de Servicios Sociales. Partiendo del proyecto de implantación a nivel nacional impulsado por la Federación Española de Municipios y Provincias (FEMP), se han incorporado mejoras metodológicas para su aplicabilidad en el ámbito local de la Comunidad Autónoma Vasca en donde se ha logrado que los ayuntamientos adheridos puedan compararse mediante un catálogo de indicadores de gestión consensuados (indicadores de actividad, económicos de coste y presupuesto y de entorno) relevantes para el proceso de toma de decisiones de los gestores sociales.

1 SARRERA

Aurkezten den lana herri erakunde eta unibertsitateko hainbat talderen arteko elkarlanaren ondorioa da. Izan ere, gizarte zerbitzuen eskaintza hobetu eta gizarteari eraginkortasun eta gardentasunez udal zerbitzuak ematearren Euskal Autonomia Erkidegoko zazpi hiriburu handienetatik sei udaletzek parte hartu dute proiektu honetan. Bilbo, Getxo, Irun, Portugalete, Donostia eta Vitoria-Gasteizko Ongizate Saileko buruek kudeaketa tresna berriztatzaileak erabiltzeko borondatea eta interesa bat etorri da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) ikerketan diharduen lantalde baten proiektuarekin. Gizarte Zerbitzuen kudeaketarako adierazle sistema bat ezartzea izan da lanaren ardatza. Era honetara, zerbitzu komunuen alderagarritasuna (benchmarking) eta erabaki egokiak hartzeko 2006 ekitaldian eskainitako gizarte zerbitzuen kostuaren ezagutza izan dira helburuak.

2 IKERKETA APLIKATUAREN HELBURUAK ETA EGITURA

Lan honen **helburua** aipatu udaletxeetako gizarte zerbitzuetako arduradunen kudeaketa hobetzeko beharrari erantzun zehatza ematea izan da.

“

Gizarte Zerbitzuen kudeaketarako adierazle sistema bat ezartzea izan da lanaren ardatza.

”

Lan ildoak hauek izan dira:

a) Udaletxe desberdinen Gizarte Zerbitzu sail bakoitzak emandako prestazioen katalogoa egitea, komunean dituzten eskaintzak eta bestelakoak bereiztuz.

b) Zerbitzu bakoitzaren kostuaren arrastoa aztertu.

c) Zerbitzu publikoen errealitatea kontuan hartuz kostuen eredu egokia diseinatzea.

d) Adierazleen katalogoa egitea: jarduera-adierazleak, adierazle ekonomikoak -aurrekontu eta kostukoak- eta ingurune adierazleak bereiztuz, proiektuan parte hartu duten sei udaletxeek erabiltzeko.

Proiektu honen helburuak Herri Administrazioaren kudeaketarako **kostu eta adierazle sistema integratu baten** ezarpenean oinarritu dira. Zertarako? Kudeaketa publikoa hobetzeko, gizarte ekintzaren helburuak betetzeko, baliabideen erabilera eraginkorra lortzeko, antolaketa kulturen aldaketa bultzatzeko, zerbitzuen gardentasuna bermatzeko, eta azkenik herri kudeaketa islatzen duten adierazle sendoen bitartez alderagarritasuna lortzeko. **Kudeaketa Publiko Berria** deritzon dotrinaren esparruan kudea-

ketarako informazioa ekoiztu nahi da, erabiltzaile desberdinek (kudeatzaile, gobernari, herritarrak, Kontuen Epaitegia bezalako erakundeak, etab.) erabakiak hartzeko baliaigarria dena, eta kontuen aurkezpena bultzatzen duena.

Lan honetan agindutako helburuak behar bezala betetzeko ondoren zehazten diren faseak ezinbestekoak izan dira:

- a) Informazioaren bilketa lana.
- b) Erabilitako metodologiaren arrazoiak adierazi.
- c) Kostu motak zehaztu.
- d) Informazioaren tratamendua burutu eta zerbitzu eta adierazle komun en katalogoa prestatu, FEMP (Federación Española de Municipios y Provincias) proiektuan oinarriturik.
- e) **Emaitzak eta ondorioak:** azkenik **emaitzak eta ondorioak** atera dira eta **gomendioak** eman dira. Erabilitako sistemaren erabilgarritasuna hobetzeko etorkizuneko urratsak ere hautesman dira, Ongizateko Zerbitzuen buruei azken dokumentuan luza-tu zaielarik.

Ondorengo ataletan emandako urrats hauek eta erabilitako metodologiaren garapena aurkeztuko da, zerbitzuen kostua kalkulatzeko erabili dena.

“

Kostu inorganikoen sistema aukeratu da: zerbitzuak kostu-eramaileak izanik, eramaile bakoitzak bere bidean kontsumitutako baliabideen arabera egotzi dira kostuak, gastu-zentroak baztertuz.

”

3 INFORMAZIO BILKETA

Lan honen informazio bilketa prozesua gauzatzeko ondorengo jarduerak gauzatu dira:

- Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariak izendatutako arduradunekin elkarriketa sakonak mantendu dira, elkar-lana eta batez ere erabiltzaileen inplikazioa oso garrantzitsua baita lanak emaitza egokiak sor ditzan.
- Alderagarriak izan daitezkeen zerbitzuen arduradunek emandako informazioaren bilketa. Izan ere, kostuen azterketa egiteko zerbitzu bakoitzak barnertzen dituen jarduerak eta baliabideen kontsumoa zehaztasunez ezagutu behar da eta horretarako erabili diren informazio-iturriak hauek izan dira:
 - Eskaintzen diren zerbitzuekin lotura duten egitarauen arduradunek zuzenean emandako informazioa.
 - Aurrekontuaren exekuzioak ematen dituen datuak.
 - Kalkulatutako kostuak, aurreko iturrietatik zuzenean jaso ezin direnean.
- Bildutako informazioaren hautaketa eta analisisa. Era

honetara kalkulatzeko dira zerbitzuen kostuak eta adierazle desberdinak, hau da proiektu honetan parte hartu duten udaletxeetako Gizarte Zerbitzuetako zerbitzu komun en jarduera, aurrekontu, kostu eta ingurune adierazleak. Azken fasea konplexua izan da, batez ere zerbitzu ematea oso zabala baita eta bestetik herri erakunde bakoitzak antolamendu egitura propioak dituelako. Hala ere, homogeneizatzeko lehen urratsa eman da eta egokitzapenak laburbiltzen dituen taula egin da. Gainera zerbitzuak kode bidez izendatzearan lan gehigarria egin da, datuen erabilera erraztu eta udaletxe desberdinetako zerbitzuak alderatzeko bideragarritasuna bermatuz.

4 LAN HONETAN ERABILITAKO METODOLOGIA

Ikerketa lan honetan garatu diren gizarte zerbitzuen kostuak behar bezala kalkulatzeko kostu-sistema egokiena erabaki behar izan da. Horretarako, aukera desberdinak banan-banan aztertu dira eta ondorioak hauek izan dira:

1. Kostu organikoen sistemaren erabilera. Izaeraren arabera gastuak zerbitzuetara egotziko dira zentro edota gastu unitate funtzionalen arabera (sailkapena, kokagunea eta egozpena), hau da antolakuntza egituraren arabera. Zeharkako kostuen banaketa zerbitzuetara, banaketa-gakoak erabiliz burutuko da, oro har jarduera neurriak unitate fiskoekin bateratuz.

2. Kostu inorganikoen sistema. Zerbitzuak kostu-eramaileak izanik, eramaile bakoitzak bere bidean kontsumitutako baliabideen arabera egotziko dira kostuak, gastu-zentroak baztertuz. Nahiz eta itxuraz lokalizazio fasea desageritzen den, ez da hau horrela; kokagunea prozesu bilakatu da, eta ez da aurreko kasuan bezala zentroa izango.

Ondorioz, kostu inorganikoen sistema egokia da dihardun arlo honetan, ardua-gune berdina duten zerbitzu heterogeneo bakoitzari, eragiten dieten kontsumo-ibilbidea era berezian adieraziko baitaie eta era honetara kalkulatzeko kostua benetan zerbitzuaren kostuaren adierazgarria izango da.

Kostu inorganikoen sistema erabiltzeko bi aukera daude:

- a. Jardueretan oinarritutako kostu-sistema
- b. Prozesuetan oinarritutako kostu-sistema

Kasu honetarako **prozesuetan oinarritutako kostu-sistema** aukeratu da. Izan ere, sektore publikoan prozesuak dira baliabideak kontsumitzen dituztenak. Era berean, prozesuak jarduera-mapa bidez adieraziko dira, jarduera hauek zehaztuz, eta kudeatzaileen lana erraztuz.

5 KOSTU MOTAK

Kostuen kalkulua egiteko teilakatutako kostu osoaren sistema erabiliko da. Zerbitzu bakoitzaren kostua maila bakoitzean kontsumitutako baliabideen kostu guztien batura izango da. Mailakatze honek kudeatzailearen lana erraztuko du, alde batetik informazio xehatua izango baitu eta bestetik kostua guztira (osoa). Azken datu hau

urtean emandako zerbitzu kopuruagatik zatituz gero banako kostua ere ezagutuko da, nahiz eta, jakina, zerbitzuaren batez besteko baliabideen kontsumoa izango den.

Lan honetan, beraz, kostu motak bereiztea erabaki dugu, azaldutako metodologia jarraituz zerbitzu bakoitzaren kostu-egiturari buruzko informazioa ezagutzearren:

KOSTU MOTAK	
1. ESLEITUTAKO KOSTUA	
2. ZERBITZUAREN KOSTU ZUZENA	
2.1. PERTSONALA	
2.2. KONTRATAK	
2.3. HITZARMENAK ETA DIRULAGUNTZAK	
2.4. BESTELAKOAK (2 KAPITULUAREN GAINERAKOA)	
2.5. AMORTIZAZIOAK	
3. ZERBITZUAREN ZEHARKAKO KOSTUA	
3.1. PERTSONALA	
3.2. KONTRATAK	
3.3. HITZARMENAK ETA DIRULAGUNTZAK	
3.4. BESTELAKOAK (2 KAPITULUAREN GAINERAKOA)	
3.5. AMORTIZAZIOAK	
4. ZERBITZUAREN KOSTUA GUZTIRA (1+2+3)	
5. KUDEAKETAREN ZEHARKAKO KOSTUAK	
5.1. ARLO EDO SEKZIO MAILA	
5.2. SAIL MAILA	
5.3. ZEHARKAKOAK EDO LAGUNTZA ZENTROAK	
6. ANTOLAKUNTZAREN KUDEAKETAREN ZEHARKAKO KOSTUA	
7. ZERBITZUAREN KOSTU INTEGRALA (4+5+6)	

Zerbitzu bakoitzaren kostuaren osagaiak **likidatutako aurrekontuetako gastu** hauek dira: ñabardura batzuekin I kapitulua (pertsonek), II kapitulua (ondasun eta zerbitzu arrunten erosketak), eta IV kapitulua (transferentzia arruntak). Aipatu gastuak zerbitzu bakoitzarentzat adierazitako arrastoaren arabera egotziko dira. Bestalde, **aurrekontuz kanpoko** kostuak ere badira, hala nola zerbitzu ematean erabili diren hainbat aktiboen amortizazio kostuak baliabideen kontsumoa islatzen baitute.

1. Esleitutako kostua

Zerbitzua eman aurretik burutu diren hainbat jarduerak sortu dituzten kostuak dira, adibidez herritarrei emandako informazio/harrera kostuak. Hori dela eta zerbitzuaren bukaerako kostuari erantsi beharko zaizkio. Informazioa ematearen jarduerak hainbat baliabide kontsumitzen ditu eta eskaintako bukaerako zerbitzua osatzen duten gainerrako aktibitateetatik bereiz daiteke. Hala ere, nahitaezkoa da aurre-zerbitzu hau (informazioa ematea, alegia), zerbi-

tzu-ematea osotasunean burutzeko, beraz zerbitzuaren kostu osoa kalkulatzeko kontuan hartu behar dira.

2. Zerbitzuaren kostu zuzena

Aurreko taulan aurkeztu diren 2.1. ataletik 2.5. atalera bitarteko kontzeptuak barneratzen ditu. Zerbitzuarekin zuzenean identifikatzen diren kostuak dira.

Nolanahi ere atal hauetako kostuak ez dira beti sentsu heretsiko kostu zuzenak izango. Adibidez pertsonal kostuak zerbitzuetara egotzi behar direnean, gerta liteke (eta maiz hala izaten da) pertsona batek, adibidez gizarte laguntzaile batek, zerbitzu batean baino gehiago parte hartzea. Beraz kasu horietan pertsona horren kostua ezin da zerbitzu bakar bati egotzi. Gure iritziz, zerbitzu-ematearen kostu erreala ezagutzeko eta kostua osatzen duten faktoreak hobeto ulertzeko, zerbitzuan zuzeneko eragina duten kostuak barneratu behar dira, nahiz eta hainbat kasutan zailtasunak egongo diren egozpena egiteko orduan.

2.1. Pertsonala

Udaletxeetako Gizarte Zerbitzueetako (Gizarte Zerbitzuetako harrera gunea) gizarte langileen pertsonal kostuak barneratzen ditu. Zerbitzu-emate jakin batean bestelako langileek ere parte hartu baldin badute, hauen kostuak ere kontuan hartuko dira; hau da, nahiz eta beste gune bateko langileak izan, zerbitzu-ematearen kostuak osotasunean hartu behar dira, prozesuaren arrastoan adierazi den moduan. Horregatik, ezinbestekoa egiten da aurrez jarduera-mapa behar bezala zehaztea; garrantzitsuena ez da kokagunea, baizik eta zerbitzu-ematearen prozesuak kontsumitu dituen baliabide guztiak ezagutzea.

Gizarte langileen pertsonal kostua kuantitatiboki esanguratsuenetakoa da, beraz zerbitzu desberdinen artean behar bezala banatzea funtsezko lana izango da. Zerbitzu-ematean parte hartu duen pertsonalaren kostua zuzen egotziz gero, bukaerako emaitzen baliagarritasuna bermatua dago. Hori dela eta, kudeatzaileen ezagutza eta koordinazioa derrigorrezkoa izango da.

Pertsonal kostuen banaketaren garrantzia kontuan hartuz, eta irizpide homogeen bat bilatu asmoz, lan honetan saiakera egin da banaketa egokiena burutzeko **unitate baliokideak** erabiltzea. Zerbitzu bakoitzean burutu den kontsumoaren neurri-unitatea izango da, eta zerbitzu desberdinetan banatu beharreko kostua egokiago egotzeko erabiliko da.

Lan honetarako erabili den unitate baliokidea zerbitzuen **konplexutasun maila** izan da; hau da, zerbitzuaren tramitazioa, jarraipena, kontrola, zailtasuna, etab. kontuan hartuz –zerbitzuak eskatzen duen denbora, azken batean- udaletxe bakoitzak pertsonalaren kostuak zerbitzuetara esleitu ditu, giza baliabideen erabilera edo kontsumoaren isla ekonomikoa baitira.

2.2. Kontratak

Udaletxeak kontratatutako erakundearen kostuak barneratzen ditu, eta zerbitzu konkretu batekin erlazionatzeko ez da aparteko arazorik egon ohi. Hemen aipamen berezia merezi dute etxeko etxeko laguntza-zerbitzua, harrera udal-zentroak, prebentzio-zerbitzuak (adin txikikoak dituzten familietan esku-hartzeak), adineko pertsonen alojamendu ezberdinak, eta abar bezalako zerbitzuak.

2.3. Hitzarmenak eta dirulaguntzak

Atal honetan kokatzen dira zenbait baldintza bete ondoren zenbait pertsona edota kolektiboek ematen zaizkien laguntza ekonomikoak (adibidez gizarte larrialdietako laguntzak) eta irabazi asmorik ez duten erakunde edota adineko pertsonen elkarteei ematen zaizkien dirulaguntzak.

2.4. Bestelakoak (2. kapituluaren gainerakoa)

Oraindik esleitu gabe dagoen eta egozpena egiteko zailtasun gehiegi ez duen aurrekontuko II. Kapituluko gaitzarentzako gastuak jasotzen ditu.

2.5. Amortizazioak

Mota honetako informazio jasotzeko aparteko arazoekin aurkitu gara: sail bakoitzari dagozkion ibilgetuen zerrenda eguneraturik ez dagoelako, aurreikusitako bizitza, erosketa-data edota erosketa-prezioarekiko informaziorik ez dagoelako, edota eguneratutako preziorik ez dutelako edota errentamenduak daudelako.

Egia da gaur egun, salbuespenak salbuespen, udaletxeek ibilgetuen kudeaketa egoki bat ez dutela eta ondorioz nekez kalkulatu daiteke hauen erabilerak sortutako kontsumoa, hots, amortizazioa. Nolanahi ere gizarte zerbitzuen arloan ibilgetuaren kontsumoak duen garrantzia mugatua da eta zenbatekoa hau kostu integralean ez barneratu izanak ez ditu baliogabetzen lortutako emaitzak eta guztiz baliagarriak dira ikerketaren ondorioak azaltzeko garaian. Garbi dago planteamendu hau onartezinezkoa dela Kirolak bezalako sailetan.

3. Zerbitzuaren zeharkako kostua

Zerbitzu bat baino gehiago elikatzen dituztenez gero bere egozpenerako banaketa-gako ezberdinak erabili dira. Zenbait zerbitzuen kasuan zeharkako gastuak kuantitatiboki adierazgarriak direnez arretaz aztertzea gomendatzen da.

4. Zerbitzuaren kostua guztira

1, 2 eta 3 kostu moten baturak **zerbitzuaren kostua guztira** (4) emango digu, zerbitzu gehienetan **kostu integralaren** (7) %80 baino gehiago izan ohi delarik. Garbi dago beraz, kudeatzaile edota zuzendariak nora bideratu behar dituzten euren esfortzuak zerbitzuen kostuak kontrolatu nahi badituzte behintzat. Arrazoi honi beste bat gaineratu behar diogu: ondoren datozen kostuen egozpena zaila da.

5. Kudeaketaren zeharkako kostuak

Zerbitzuen multzo batzuekin erlazionatutako funtzio anitzeko pertsonal gastuak izan ohi dira nagusiki, hau da, udal aurrekontuaren antolaketa egituraren arabera langileak zerbitzu ezberdinetara esleitutako kostu zentro edo programetara atxikituta daude.

Normalki hainbat prestazio edota zerbitzu jasotzen dituen programa bati atxikitutako langile guztiak baterako lana egin ohi dute programako zerbitzuak kudeatzeko garaian.

Programa bakoitzeko arduradunak emandako informazioaren arabera funtzio anitzeko pertsonalaren banaketa

“
Prozesuetan oinarritutako kostu-sistema aukeratu da, sektore publikoan prozesuak direlako baliabideak kontsumitzen dituztenak.”

egin ohi da, orokorrean zerbitzu bakoitza eskaintzeko bideratu ohi duen dedikazioan oinarritu ohi delarik.

Baldin eta aurreko prozedura gauzatu ezinezkoa bada, aurreko kostuen (zuzenekoak eta zeharkakoak) proportzioak erabili daitezke kudeaketaren zeharkako kostuak banatzeko.

Kudeaketaren zeharkako kostuen artean aurkitzen dira arlo edo sekzio mailakoak, sail mailakoak eta zeharkakoak. Azkeneko multzo honetan kokatzen dira **laguntza zentroak**, beste programa edota sailetatik etorri arren zerbitzuaren prestaziorako ezinbestekoak dira edota beharrezkoa den osagarria da zerbitzua gauzatu dadin. Normalki zentralizatuta dauden laguntza zentroak izan ohi dira, eta euren helburua hainbat zerbitzu gauzatzen laguntzea da.

6. Antolakuntzaren kudeaketaren zeharkako kostua

Herri erakundeak eskaintzen dituen zerbitzu edota prestazio guztien kostu oso edota integrala kalkulatzeko aukera izan ez dugunez gero antolakuntzaren kudeaketaren zeharkako kostuak (alkatetza, ekonomia, etab.) ez dira kontuan hartu.

7. Zerbitzuaren kostu integrala

Aipatutako kostu guztiak batu ondoren zerbitzuaren kostu integrala lortuko da.

6 ADIERAZLEEN KATALOGOA

Ikerketaren azkeneko helburua adierazleen katalogoa egitea izan zen. Hiru motatako adierazleak lantzeaz gain euren arteko loturak ere ezarri dira. Ikus ditzagun zeintzuk izan diren adostutako adierazleak:

1) Jarduera-adierazleak: udaletxeak eskaintako zerbitzuen jarduera ebaluatu eta neurtzen dute, eskaeran izandako eragina eta erabiltzaileen beharrak asetzeko sortutako outputen kopuru fisikoak islatzen saiatuz. Era berean, hiritarra bezero gisa ikustean zerbitzuen kalitatea aurreikusten saiatzen da.

2) Adierazle ekonomikoak:

a) *aurrekontukoak:* adierazle hauek onartu, exekutatu eta likidatutako aurrekontua hartu ohi dute oinarritzat. Aurrekontu izaera duen kudeaketa ebaluatu ahal izateko indize, proportzio eta partidak interpretatzeko ratioekin identifikatu ohi dira. Adierazle hauen baloreak kostu adierazleekin korrelazionatuak egon ohi dira zeren eta zerbitzua eskaini ahal izateko zenbat eta baliabideen kontsumoa handiago izan finantzaketa behar handiago izango du.

b) *kostukoak:* adierazle hauek udaletxeak eskaintako zerbitzuen prestazio eta kudeaketarako beharrezkoak diren baliabideen kontsumoa adieraziko dute. Era honetan erakundearen eraginkortasun ekonomikoa neurtzeko aukera eskainiko du.

1) Ingurune adierazleak: adierazle hauek udaletxeak kontrolatzen ez dituen zenbait aldagaiei buruzko informazioa ematen dute. Aldagai hauek udaletxeak eskaintzen dituen zerbitzuen prestazio baldintzetan eragina izan dezakete: eskaeran, populazioarengan sortutako eraginean, sortutako kostuetan eta zerbitzuen kalitatean.

Ondorengo tauletan adostutako adierazleen zerrenda jasotzen da:

A) JARDUERA-ADIERAZLEAK	
A.1	Gizarte Zerbitzuetan kasu egindako pertsonen indizea
A.2	Parte-hartze indizea/erabiltzaileei oharrak
A.3	Etkez etxeko portzentajea hirugarren adinari
A.4	Etkez etxeko portzentajea zahartzaroari
A.5	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren estaldura indizea
A.6	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren pertsonen estaldura indizea
A.7	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren etxeen estaldura indizea
A.8	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren adinekoen etxeen estaldura indizea
A.9	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzailearen urteko intentsitate indizea
A.10	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzailearen asteko intentsitate indizea
A.11	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren etxeen urteko intentsitate indizea
A.12	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren etxeen asteko intentsitate indizea
A.13	Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren estaldura-indizea
A.14	Telealarma bidez kasu egindakoen portzentajea

A.15	Telealarma zerbitzuaren etxeen estaldura-indizea
A.16	Telealarma zerbitzuaren adinekoen etxeen estaldura-indizea
A.17	Laguntza ekonomikoen jasotze-indizea mila biztanleko
A.18	Gizarte Zerbitzuetan kasu egindakoen atzerriko nazionalitatea duten pertsonen portzentajea
A.19	Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako larrialdi-egonaldien indizea
A.20	Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako plazen estaldura-indizea
A.21	Ettxerik gabeko pertsonen harrera-zentroen plaza-indizea
A.22	Etkez etxeko laguntza prestazioaren batez besteko denbora-hasiera gizarte zerbitzuetan
A.23	Gizarte Zerbitzuetako giza baliabideen-indizea (gizarte laguntzaileak)
A.24	Gizarte Zerbitzuetako giza baliabideen-indizea (gizarte laguntzaileak eta beste teknikoak)

B) ADIERAZLE EKONOMIKOAK

B.1) AURREKONTU ADIERAZLEAK

EP.1	Gizarte zerbitzuetan gastu arruntak biztanleko
EP.2	Gizarte zerbitzuetan kapital gastu biztanleko
EP.3	Gastu arruntaren portzentajea gizarte zerbitzuetan
EP.4	Kapital gastu ez-finantzarioen portzentajea gizarte zerbitzuetan
EP.5	Gizarte zerbitzuetako gastu arruntaren estaldura-portzentajea jasotako transferentzia arruntaren arabera
EP.6	Gizarte zerbitzuetako gastu arruntaren estaldura-portzentajea erabiltzaileen finantzaketaren arabera.
EP.7	Gizarte larrialdietako laguntza ekonomikoaren batez besteko zenbatekoa

B.2) KOSTU ADIERAZLEAK

EC.1	Jendeari harrera: informazioa eta orientabidea
EC.2	Oinarrizko errenta
EC.3	Gizarte Larrialdietako Laguntza Ekonomikoak
EC.4	Beste zenbait udal laguntza ekonomiko: laguntzak, ...
EC.5	Beste zenbait laguntza (ez udalekoak): FBS (gizarte ongizate fondoaren pentsioak)
EC.6	Beste zenbait laguntza (ez udalekoak): LISMI (ezinduen gizarteratze legea)
EC.7	Gizarte irizpideekin zerbitzuetara sarrera: kirolak, garraioak, aparkalekuak, ...
EC.8	Ettxeko zerbitzuak: etxez etxeko laguntza zerbitzua
EC.9	Ettxeko zerbitzuak: telealarma
EC.10	Leku irekian heziketa
EC.11	Adin txikikoen arrisku detekzioa
EC.12	Emakumeentzako larrialdi-etxebizitzak (genero-indarkeria)
EC.13	Informazioa, orientabidea eta laguntza (txertatze/lana)
EC.14	Heziketa eta lana
EC.15	Aholkularitza sozio-juridikoa (etorkinak)
EC.16	Kultura ezberdinekoen bizikidetzaren bitartekaritza (heziketa programak, interpretazioak, laguntzak, ...)
EC.17	Arriskuen dauden adin txikikoen familietan parte-hartzea
EC.18	Prebentzio-programak: osasunerako heziketa eta drogomenpekotasun-prebentzioa

EC.19	Prebentzio-programak: babesgabetasun eta arrisku egoeren detekzio eta prebentzio-programak
EC.20	Gaztetxo eta gurasoentzako programak
EC.21	Etxebizitza sozialak
EC.22	Eguneko zentruak
EC.23	Adineko pertsonen elkarte eta zentroi aholkularitza, laguntza eta finantzaketa
EC.24	Dirulaguntzak
EC.25	Menpekotasuna duten adindunak: eguneko zentroak
EC.26	Menpekotasuna duten adindunak: behin-behineko egonaldia erresidentzian
EC.27	Menpekotasuna duten adindunak: Erresidentziak

C) INGURUNE ADIERAZLEAK

E.1	Zahartzero-indizea
E.2	Biztanleri menpekotasun-indizea
E.3	Etorkinen biztanleri portzentajea
E.4	Familia errenta erabilgarria biztanleko
E.5	Langabezia-tasa
E.6	Biztanleriaren urteko hazkunde-tasa

7 EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Ikerketa gauzatu ondoren lortutako zenbait emaitza eta ondorio ondorengoak dira:

- Ikuspuntu kualitatibotik udaletxe ezberdinek eskaintzen dituzten prestazio edota zerbitzu komunak (5 edota 6 udaletxetan eskaintzen direnak) %30 ingurura iristen dira.
- Ikuspuntu kuantitatibotik prestazio komunak kostu integralen %80 baino gehiago kontsumitzen dute.
- Kudeatzaileen kolaborazioa ezinbestekoa da adierazle-
en edukia eta kalkulua hobetzeko.
- Zenbait kasutan zerbitzu edota prestazio berarentzat izen ezberdina erabili izan da. Homogeneizatze proposamen bat egin da.
- Prestazioen baliabideen kontsumoa identifikatzen duten kostu-eramaileak bateratzeko beharra ikusi da.
- Zenbait kasutan agente ezberdinek banatutako informazioaren izaeraren arabera banaketa-gako ezberdinak erabili dira. Beharrezkoa da, ahal den neurrian, banaketa-gako eta informazio iturriak bateratzea.
- Hasiera batean adostutako adierazle guztiak (24 jarduerakoak, 7 aurrekontu adierazleak, 27 kostu adierazleak eta 6 inguruneak) ezin izan dira osatu erakunde

“

Adierazleen katalogo bat osatu da, hiru motatako adierazleak biltzen dituena: jarduerazkoak, ekonomikoak eta inguruneak.

”

ezberdinen informazio-sistemek ez dituztelako datu guztiak banatu.

h) Adierazle guztien berrazterketa beharrezkoa da ondorengo arrazoiengatik:

– adierazle bakoitzaren kalkuluan parte hartzen duten osagaien eduki eta helburua hobeto definitzeko,

– adierazle mota ezberdinen arteko loturak hobeto finkatzeko, eta

– udaletxe bakoitzaren adierazle espezifiko eta komunak zeintzuk diren zehazteko.

8 BIBLIOGRAFIA

Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. (2004). *Guía de Gobierno Local 2004. Udal-Gobernuaren Gidaliburua 2004*. (Instituto Vasco de Administración Pública-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. IVAP ed.) Oñati.

– ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE CONTABILIDAD Y ADMINISTRACIÓN DE EMPRESAS AECA (1997a). *Indicadores de Gestión en las Entidades Públicas: Principios de contabilidad de gestión*. Documento 16.

• AECA (1997b). *La Contabilidad de Gestión en las Entidades Públicas Principios de contabilidad de gestión*. Documento 15.

- AECA (2001). La Contabilidad de Gestión en las Entidades Públicas.
- AECA (2002). Un sistema de indicadores de gestión para los ayuntamientos Principios de contabilidad de gestión Documento 26.
- Audit Commission for Local Authorities and The national Health Service in England and Wales. (1992). Citizen's Charter indicators: Charting a Course.
- Department of Treasury and Finance. Government of Western Australia (2004). *Outcome Based Management: Guidelines for use in the Western Australian Public Sector. Perth.*
- Diputación de Barcelona (2005). Indicadors de gestió de serveis municipals. *Àrea de Govern Local.*
- Diputación Foral de Gipuzkoa (2007). *Guía de gestión por objetivos para los ayuntamientos de Gipuzkoa.*
- European Commission Environment (2002). *Hacia un perfil de la sostenibilidad local. Indicadores comunes europeos. Fichas metodológicas.* Bruselas.
- F.E.M.P. (2006). Guía para la Implantación de un sistema de costes en la Administración Local.
- F.E.M.P. (2007a). El coste de los servicios sociales para los ayuntamientos. *Carta Local, 192, 46-49.*
- F.E.M.P. (2007b). Guía para la Implantación de un sistema de costes en la Administración Local.
- Governmental Accounting Standards Board (2003). *Reporting Performance Information: Suggested criteria for effective communication.* Connecticut.
- IGAE (1994). Contabilidad analítica de las Administraciones Públicas. El proyecto CANOA. *Ministerio de Economía y Hacienda. Madrid.*
- Institute of Chartered Accountants of New Zealand. (1998). Institute of Chartered Accountants of New Zealand (ICANZ).
- Ministry of Municipal Affairs and Housing (2003). *Municipal Performance Measurement Program.* (Gobierno de Ontario, Canadá ed.) Toronto.
- SINIGAL II (2002). *Diseño de un sistema normalizado de indicadores de gestión aplicables a las Administraciones Municipales.*

*Albiste
laburrak*



ESTATUKO 2009. URTERAKO AURREKONTU OROKORREN LEGE PROIEKTUA**A) DIRUAREN LEGEZKO INTERESA ETA BERANDUTZA INTERESA**

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Proiektuaren Xedapen Gehigarrietan izaera desberdineko prezeptuak jaso dira, eta horien artean diruaren legezko interes tasa eta berandutza interesa finkatzea helburu dutenak aipa daitezke.

Hain zuzen ere, ezarri den berandutza interesa 100eko 7koa da, eta diruaren legezko interesa, berriz, 100eko 5,5koa (Lege proiektuaren hogeita seigarren xedapen gehigarria).

B) UDAL ZERGETAN ERAGITEN DUTEN NEURRI FISKALAK

Estatuko 2009. urterako aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Proiektuan, aurreikusita dago balio katastral guztiak eguneratzea, 1,02 koefizientea aplikatuz, ondasun higiezin landatar nahiz hiritarrei dagokienez.

C) GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOAK

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Proiektuaren VIII. Tituluak Gizarte Segurantzaren erregimen desberdinetako kotizazio oinarri eta tasak arautzen ditu.

Zehazki esanda, Gizarte Segurantzaren erregimen bakoitzean aplikatzeko ezartzen den gehienezko kotizazio oinarria 3.166,20 eurokoa izango da 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Bestalde, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren dagokionez kotizazio tasak bere horretan utzi dira 2009. urterako. Horrela, kontingentzia arrunten kasuan, tasa hori 100eko 28,30koa da (100eko 23,60 enpresaren kontura eta gainerako 100eko 4,70 langilearen kontura).

D) 2008-2009 EKITALDIETARAKO AURRIKUSPEN MAKROEKONOMIKOAK

2009. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Proiektua aurkezten duen liburuak "Espainiar ekonomia bilakaera" atalean, 2008-2009rako aurreikuspen makroekonomikoak jasotzen ditu.

Bertan, 2009an Barne Produktu Gordina (BPG) %1,00 haztea aurreikusi da, eta BPGren deflaktorea, berriz, %2,50.

TOKI FINANTZIAZIOA

■ Espainiako Udal eta Probintzien Federakuntzaren (FEMP) web orrian, toki entitateen atalean, aldizkari eta liburuen guneko ekonomia azpiatalaren barruan, *La financiación local en España. Radiografía del presente y propuestas de futuro* liburua aurkitu dezakegu. Azterketa hau Javier Suárez Pandiello irakasleak koordinatu du, Núria Bosch Roca, Francisco Pedraja Chaparro, Juan José Rubio Guerrero, eta Alfonso Utrilla de la Hozen laguntzarekin.

Estatistika atalean aurki ditzakegu lan honetako datu interesgarriak.

4

Estatistikak



EVOLUCIÓN DE LA ECONOMÍA EN GIPUZKOA

La economía guipuzcoana, a lo largo de los meses transcurridos del presente año, esta mostrando, en general, una cierta desaceleración en su nivel de actividad. El sector industrial ve frenado el buen ritmo de crecimiento del año pasado; la cartera de pedidos se ha vuelto pesimista y la población ocupada en el sector presenta síntomas de debilidad. En la construcción, los datos adelantados muestran un significativo descenso del número de viviendas proyectadas, a pesar del importante crecimiento de la ocupación en el sector. En lo referente al sector servicios, todos los indicadores disponibles tienen tasas de crecimiento negativas, a pesar del repunte experimentado por el tráfico de mercancías en el bimestre de julio-agosto. Por otro lado, en el ámbito exterior, las exportaciones siguen creciendo, mientras que las importaciones presentan cierto estancamiento. Por último, el mercado laboral muestra una evolución desfavorable, con una población ocupada que se estanca y una población parada que ha crecido notablemente; la tasa de paro de este primer semestre se eleva al 3,2%, con lo que se rompe la tendencia a la baja que había registrado en los dos ejercicios anteriores.

La **industria** ve frenado su buen ritmo de crecimiento: pasa de un 6,1% anual en 2007 a un -5,8% en el primer trimestre de 2008, parece recuperarse durante el segundo trimestre (+4,2%), si bien vuelve a descender un 0,4% en el bimestre julio-agosto. Si analizamos por divisiones de actividad, las tres han evolucionado de modo similar: descensos importantes en el primer trimestre (manufacturas -5,7%, energía -7,3% e industrias extractivas -17,2%), cierta recuperación en el segundo trimestre (+4,6%, +0,4% y -13,3%, respectivamente), para volver a retraerse en el bimestre julio-agosto (-0,4%, -1,2% y +1,7%, respectivamente).

Las expectativas de la cartera de pedidos del sector también muestran señales de debilidad, ya que tras registrar una tasa positiva del 1,0% en el primer trimestre, para el segundo la tasa se vuelve un 11,7% negativa. La población ocupada en la industria, sin embargo, aunque desciende un 0,4% en el primer trimestre, se recupera en el segundo y aumenta un 0,8%.

Los indicadores de la **construcción** muestran una tendencia muy dispar, ya que mientras el número de viviendas recogidas en los proyectos visados por el colegio oficial de arquitectos vasco-navarro, el cual recogía una tasa negativa de -3,9% en 2007, ve acrecentada esta disminución de

enero a marzo (-56,3%), por su parte la población ocupada en el sector crece constantemente, trimestre a trimestre, recogiendo para el primero un tasa positiva de 9,8% y un 10,3% para el segundo.

En el **sector servicios**, la ocupación decrece desde el último trimestre de 2007 (-1,4%) en adelante (-1,5% en el primer trimestre de 2008 y un 0,9% en el segundo). En cuanto al transporte, los datos disponibles muestran la misma tendencia: el tráfico aéreo de pasajeros ha disminuido un 1,3% en el primer trimestre, un 5,3% en el segundo y un 20,2% en el bimestre julio-agosto. El tráfico marítimo de mercancías, por su parte, decrece en el primer y segundo trimestre de 2008 (-2,4% y -4,5%), pero parece recuperarse en julio-agosto (+20,4%).

El **sector exterior** presenta una moderación de su crecimiento en los primeros meses de 2008. Tras un crecimiento espectacular en 2007 (las importaciones crecieron un 15,5% y las exportaciones un 18,2%), el primer semestre muestra cierta desaceleración de ambas magnitudes. Así, las exportaciones crecen un 3,8% en el primer trimestre y un 17,5% en el segundo, mientras que las importaciones parecen estancarse, al decrecer un 2,2% de enero a marzo y aumentar solo un 0,1% en el segundo trimestre.

El **mercado laboral**, registra un empeoramiento general en el primer semestre de 2008 respecto al mismo período de 2007. La población activa ha crecido un 0,8%, mientras que la ocupada lo hace solo un 0,2%, por lo que la población parada ha experimentado una fuerte subida (22,0%). Así, la tasa de paro resultante se sitúa en el 3,2%, seis décimas superior a del mismo semestre de 2007.

En el **mercado financiero**, los tipos de interés continúan con la tendencia alcista de los últimos tiempos. El Consejo de Gobierno del Banco Central Europeo (BCE), el pasado 3 de julio decidió subir los tipos de interés del 4% al 4,25%, con el objetivo de tratar de controlar las tensiones inflacionistas de la zona euro. De este modo, el tipo de interés a tres meses en el mercado interbancario se sitúa en el 4,97% el mes de agosto (el máximo histórico desde el 5,09% de noviembre del año 2000). El tipo de interés a largo plazo (el de las obligaciones del Estado a diez años), por su parte, alcanza su máximo durante los meses de junio y julio (4,8%), para posteriormente bajar hasta el 4,6% en agosto. La media para el bimestre julio-agosto ha sido del 4,7%.

EKONOMIAREN BILAKAERA GIPIZKOAN EVOLUCIÓN DE LA ECONOMÍA EN GIPIZKOA

	2003	2004	2005	2006	2007	2007				2008				
						Hiruh./Tr.				Hiruh./Tr.				
						I	II	III	IV	I	II	III	IV	
JARDUERA														
INDUSTRIA														ACTIVIDAD
Industri Produkzioaren Indizea:														Ind.Producción Industrial:
IPI Orokorra	2,5	2,5	2,7	5,8	6,1	9,3	5,8	5,2	3,8	-5,8	4,2	-0,4	(3)	IPI General
Erauzteko industrien IPIa	2,4	-9,6	4,2	12,7	4,4	2,3	17,4	-0,7	-1,1	-17,2	-13,3	1,7	(3)	IPI Ind. extractivas
Manufaktura Industrien IPIa	2,5	2,3	2,9	6,1	6,7	10,7	5,9	5,7	4,2	-5,7	4,6	-0,4	(3)	IPI Manufacturas
Energiaren IPIa	1,7	6,1	-0,3	1,8	-0,4	-4,9	3,9	-0,7	0,6	-7,3	0,4	-1,2	(3)	IPI Energia
(1) Eskarien kartera	-20,0	-2,2	-9,0	1,3	2,0	11,3	4,7	-1,0	-7,0	1,0	-11,7			(1) Cartera de pedidos
Lanean ari den biztanleria	0,6	-3,8	-0,4	2,9	-1,2	1,2	-4,4	-3,1	1,5	-0,4	0,8			Poblac. Ocupada
ERAIKUNTZA														CONSTRUCCIÓN
Etxebizitza proiektu bisatuak (kop.)	90,0	-25,5	-11,8	32,7	-3,9	41,0	10,9	-59,2	84,6	-56,3				Visados proy.viviendas (nº)
Lanean ari den biztanleria	3,1	0,4	2,6	-9,2	6,9	3,4	6,3	12,8	5,1	9,8	10,3			Poblac. Ocupada
ZERBITZUAK														SERVICIOS
Bidaiaen aire-garraioa	3,6	5,2	3,6	19,9	27,0	31,4	28,1	38,4	12,7	-1,3	-5,3	-20,2	(3)	Tráf.aéreo pasajeros
Salgaien itsas-garraioa	10,4	-3,9	-5,5	1,6	-7,8	-19,6	0,5	-7,0	-5,4	-2,4	-4,5	20,4	(3)	Tráf. Marítimo merc.
Lanean ari den biztanleria	2,5	2,4	7,7	2,1	0,7	1,3	2,7	0,2	-1,4	-1,5	-0,9			Poblac. Ocupada
KANPO SEKTOREA														SECTOR EXTERIOR
Inportazioak, guztira	4,1	12,9	5,5	8,7	15,5	20,2	22,6	9,0	10,5	-2,2	0,1			Importación total
Esportazioak, guztira	2,3	6,0	12,6	7,2	18,2	6,1	18,4	32,1	17,3	3,8	17,5			Exportación total
LAN MERKATUA														MERCADO DE TRABAJO
Biztanleria aktiboa	3,1	0,1	-1,4	0,0	0,1	0,8	0,1	-0,1	-0,5	0,5	1,2			Población activa
Lanean ari den biztanleria	1,9	0,6	2,0	1,4	0,4	1,5	0,6	0,0	-0,3	-0,3	0,8			Población ocupada
Biztanleria langabetua	20,0	-5,6	-43,6	-31,1	-11,9	-19,1	-16,0	-2,3	-8,0	28,1	15,5			Población parada
(2) Langabezi Tasa (BJA)	7,9	7,4	4,2	2,9	2,6	2,7	2,6	2,6	2,4	3,4	2,9			(2) Tasa de paro (PRA)
FINANTZA MERKATUA														MERCADO FINANCIERO
Bankuarteke int.tasa, 3 hilera	2,3	2,1	2,2	3,1	4,3	3,8	4,1	4,5	4,7	4,5	4,9	5,0	(3)	T.Inter.interbanc. 3 meses
Obligaz.interes tasa, 10 urtera	4,1	4,1	3,4	3,8	4,3	4,1	4,4	4,5	4,3	4,2	4,5	4,7	(3)	T.Inter.obligac.a 10 años

OHARRA: Datuek islatzen dituzte batez bestekoen bariazio tasak, dagozkien epealdian.

NOTA: los datos reflejan las tasas de variación de las medias en el periodo considerado.

(1) Datu hau epealdiko batez bestekoa da eta diferentzia hau eginez kalkulatu da: eskari kopuru handia dutela dioten enpresen portzentaia ken kopur txikia adierazi dutenena.

(1) El dato es la media anual de la diferencia entre el porcentaje de empresas que dicen tener un nivel elevado de pedidos y el de las que señalan un nivel reducido.

(2) Langabezi tasak elkarrekin lotzen ditu biztanleria langabetuaren urteko, edo, bestela, hiruhileko batezbestekoa eta biztanleria aktibo osoaren aldi bereko batezbestekoa.

(2) La tasa de paro relaciona la media anual, o trimestral en su caso, de la población parada frente a la media de igual periodo de la población total activa.

(3) Uztaila - Abuztua

(3) Julio - Agosto

ITUNDUTAKO ZERGEN BILKETA 2008KO ABUZTUAREN 31RA ARTE

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurtengo diru bilketa garbia zerga itunduengatik 2.737 milioi eurokoa izan da abuztuaren 31ra arte. Araban diru bilketa 1.339 milioi eurokoa izan da eta Bizkaian 4.552 milioi eurokoa.

Euskal Autonomia Erkidego osoan zergabilketa garbia, 2008ko abuztuaren 31ra artekoa, %3,2 jaitsi da 2007koaren aldean. Lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoako zerga bilketa %2,6 jaitsi da, Bizkaikoa %2,6 jaitsi da eta Arabakoa %6,4 jaitsi da.

Diru bilketan garrantzi handiena duten zerga-kontzeptuen artean, Gipuzkoan, PFEZ %3,8 hazi da, Sozietate zerga %8,7 jaitsi da, BEZa %4,1 jaitsi da eta Zerga bereziak %6,9 hazi dira.

Zerga bilketa garbia kalkulatzeko zerga bilketa gordinari itzulketak kendu behar zaizkio.

Euskal Autonomia Erkidego osoan zergabilketa gordina, 2008ko abuztuaren 31ra artekoa, %0,3 igo da 2007koaren aldean. Lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoako zerga bilketa %0,3 hazi da, Bizkaikoa %0,9 hazi da eta Arabakoa %1,8 jaitsi da.

Lurralde historikoen itzulketei dagokienez, Gipuzkoako itzulketak %11,3 hazi dira, Bizkaikoak %12,9 hazi dira eta Arabakoak %15,0 hazi dira.

Itundutako zerga bilketa garbia kalkulatzeko kudeaketa propioko zergabilketa garbiari Estatuak ordaindutako doiketak gehitu behar zaizkio. Euskal Autonomia Erkidegoan aurtengo kudeaketa propioko zergabilketa %3,2 jaitsi da eta doiketak %2,3 jaitsi dira.

- 6** **ORDEN** de 27 de mayo de 2008, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se aprueba inicialmente la 1.ª modificación del Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se acuerda someterlo a información pública y audiencia de las administraciones públicas.
(BOPV nº 118 de 23 de junio de 2008).
- 7** **DECRETO 114/2008**, de 17 de junio, por el que se regula el procedimiento de actuación que deberán seguir las Diputaciones Forales en materia de adopción de personas menores de edad.
(BOPV nº 122 de 27 de junio de 2008).

- 8** **6/2008 LEGEA**, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa.
(EHAA, 127 zk., 2008ko uztailaren 4koa).
- 9** **8/2008 LEGEA**, ekainaren 25ekoa, Gizarte Bazterkiaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea aldatzekoa.
(EHAA, 127 zk., 2008ko uztailaren 4koa).
- 10** **7/2008 LEGEA**, ekainaren 25ekoa, Merkataritza Jar-dueraren Legearen bigarren aldaketarena.
(EHAA, 128 zk., 2008ko uztailaren 7koa).
- 11** **5/2008 LEGEA**, ekainaren 19koa, Garapenerako Lan-kidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duena.
(EHAA, 131 zk., 2008ko uztailaren 10ekoa).
- 12** **123/2008 DEKRETUA**, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa.
(EHAA, 135 zk., 2008ko uztailaren 16koa).
- 13** **135/2008 DEKRETUA**, uztailaren 15ekoa, gasa kanalizazio bidez banatzen duten enpresek erabiltzaileei egiten dizkieten zerbitzuen kostuak arautzen dituena.
(EHAA, 141 zk., 2008ko uztailaren 24koa).
- 14** **EBAZPENA**, 2008ko uztailaren 15ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, erakunde honek antolatutako ikastaroen balioztapenaren berri ematen duena, estatu mailako gaitasuna duten toki-administrazioko funtzionarioen lehiaketaren baremo orokorrean sartzeko.
(EHAA, 148 zk., 2008ko abuztuaren 6koa).
- 15** **124/2008 DEKRETUA**, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena.
(EHAA, 149 zk., 2008ko abuztuaren 7koa).
- 16** **131/2008 DEKRETUA**, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituen dekretua.
(EHAA, 150 zk., 2008ko abuztuaren 8koa).
- 17** **ITC/2308/2008 AGINDUA**, uztailaren 31koa. Horren bidez zuzentzen da ITC/1857/2008 Agindua, ekainaren 26koa, uztailaren 1etik aurrera argindarraren tarifa berrikustekoa.
(EAO, 186 zk., 2008ko abuztuaren 2koa).
- 18** **AGINDUA**, 2008ko irailaren 8koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko
- 8** **LEY 6/2008**, de 25 de junio, de la Sociedad Cooperativa Pequeña de Euskadi.
(BOPV nº 127 de 4 de julio de 2008).
- 9** **LEY 8/2008**, de 25 de junio, por la que se modifica la Ley contra la Exclusión Social y la Ley de Carta de Derechos Sociales.
(BOPV nº 127 de 4 de julio de 2008).
- 10** **LEY 7/2008**, de 25 de junio, de segunda modificación de la Ley de la Actividad Comercial.
(BOPV nº 128 de 7 de julio de 2008).
- 11** **LEY 5/2008**, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.
(BOPV nº 131 de 10 de julio de 2008).
- 12** **DECRETO 123/2008**, de 1 de julio, sobre los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias.
(BOPV nº 135 de 16 de julio de 2008).
- 13** **DECRETO 135/2008**, de 15 de julio, por el que se regulan los costes de los servicios que las empresas distribuidoras de gas por canalización prestan a los usuarios.
(BOPV nº 141 de 24 de julio de 2008).
- 14** **RESOLUCIÓN** de 15 de julio de 2008, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se da publicidad a la valoración de los cursos organizados por el instituto, a efectos de su inclusión en el baremo general de los Concursos de Funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter estatal.
(BOPV nº 148 de 6 de agosto de 2008).
- 15** **DECRETO 124/2008**, de 1 de julio, regulador de los puntos de encuentro familiar por derivación judicial en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
(BOPV nº 149 de 7 de agosto de 2008).
- 16** **DECRETO 131/2008**, de 8 de julio, regulador de los recursos de acogimiento residencial para la infancia y la adolescencia en situación de desprotección social.
(BOPV nº 150 de 8 de agosto de 2008).
- 17** **ORDEN ITC/2308/2008**, de 31 de julio, por la que se corrigen errores de la Orden ITC/1857/2008, de 26 de junio, por la que se revisan las tarifas eléctricas a partir del 1 de julio de 2008.
(BOE nº 186 de 2 de agosto de 2008).
- 18** **ORDEN** de 8 de septiembre de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de actualización de

etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuak eguneratzeko dena.
(EHAA, 170 zk., 2008ko irailaren 8koa).

- 19** **AGINDUA**, 2008ko ekainaren 20koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazioaren Idazkari, Kontuhartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialaren estatuak onartzeko dena.
(EHAA, 173 zk., 2008ko irailaren 11koa).
- 20** **1507/2008 ERREGE DEKRETUA**, irailaren 12koa, ibilgailu motordunak zirkulatzeko behar den erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguruaren Erregelamenduari buruzkoa.
(EAO, 222 zk., 2008ko irailaren 13koa).
- 21** **AGINDUA**, 2008ko irailaren 4koa, Kultura sailburuarena, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABE) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko dena.
(EHAA, 185 zk., 2008ko irailaren 29koa).
- 22** **161/2008 DEKRETUA**, irailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Estatuko gaikuntza duten Toki-administrazioen funtzionarioen 2008ko urteko enplegu publikoaren eskaintza onartzeko dena.
(EHAA, 186 zk., 2008ko irailaren 30koa).
- ingresos anuales ponderados exigibles para acceso a vivienda de protección oficial.
(BOE nº 170 de 8 de septiembre de 2008).
- 19** **ORDEN** de 20 de junio de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se aprueban los Estatutos del Colegio Oficial de Secretarios, Interventores y Tesoreros de Administración Local del Territorio Histórico de Álava.
(BOPV nº 173 de 11 de septiembre de 2008).
- 20** **REAL DECRETO 1507/2008**, de 12 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento del seguro obligatorio de responsabilidad civil en la circulación de vehículos a motor.
(BOE nº 222 de 13 de septiembre de 2008).
- 21** **ORDEN** de 4 de septiembre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se fijan los precios públicos de los servicios que presta y las actividades que realiza el Organismo Autónomo HABE.
(BOPV nº 185 de 29 de septiembre de 2008).
- 22** **DECRETO 161/2008**, de 23 de septiembre, por el que se aprueba la oferta de empleo público para el año 2008 de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter estatal.
(BOPV nº 186 de 30 de septiembre de 2008).



GIPUZKOAKO ARAUAK

NORMATIVA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

- 1 Oposizio-lehiaketarako deialdi publikoa, bi lan-poltsa eratzeko: Bat udaletako idazkaritza lanpostuak betetzeko eta bestea kontuhartzaitza lanpostuak betetzeko. Bi lan poltsak arautzeko oinarriak. (129 zk.ko GAO, 2008ko maiatzaren 23koa).
- 2 Maiatzaren 20ko **34/2008 FORU DEKRETUA**, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa. (103 zk.ko GAO, 2008ko maiatzaren 30ekoa).
- 3 2007ko otsailaren 27ko **12/2007 FORU DEKRETUA**, Gipuzkoako toki erakundeei diru laguntzak emateko oinarriak onartzen dituena. (107 zk.ko GAO, 2008ko ekainaren 5ekoa).
- 4 **ERABAKIA**, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Oso-koak 2007ko abenduaren 14ko bilkuran hartua, EAE-ren eta Foru Aldundien Administrazio Orokorren 2004ko kitatutako aurrekontuen eta bere kontsolidatuaren banaketa funtzionalari buruzko agiri informatiboa behin-betirako onesten duena. (113 zk.ko GAO, 2008ko ekainaren 13koa).
- 5 Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren prestazioak osatzeko diru laguntza ezarri eta arautzen duena. (120 zk.ko GAO, 2008ko ekainaren 24koa).
- 6 2008ko ekainaren 24ko **61/2008 FORU DEKRETUA**, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua aldatzekoa. (121 zk.ko GAO, 2008ko ekainaren 25ekoa).
- 7 **577/2008 FORU AGINDUA**, ekainaren 24koa, Sozietateen gaineko Zergaren eta establezimendu iraunkorrei dagokien Zergadun Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioak aurkezteko modalitateak, haiek aurkezteko 200, 220, 20G eta 22G ereduak, zerga horiei dagokien 20C eredu (ganberaren baliabide iraunkorra), 200 eta 220 ereduaren diseinu fisiko eta logikoak, eta ordaintzeko modua eta aurkezteko epe eta tokiak onartzen dituena. (121 zk.ko GAO, 2008ko ekainaren 25ekoa).
- 1 Convocatoria pública de concurso-oposición para bolsas de trabajo que tienen por objeto cubrir interinamente puestos de Secretaría e Intervención de Ayuntamientos. Bases Reguladoras de ambos procesos selectivos. (BOG nº 129 de 23 de mayo de 2008).
- 2 **DECRETO FORAL 34/2008**, de 20 de mayo, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas. (BOG nº 103 de 30 de mayo de 2008).
- 3 **DECRETO FORAL 12/2007**, de 27 de febrero, por el que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones a entidades locales guipuzcoanas. (BOG nº 107 de 5 de junio de 2008).
- 4 **ACUERDO** del Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de aprobación definitiva del documento informativo sobre distribución funcional de los presupuestos liquidados 2004 de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de las Diputaciones Forales, así como de su consolidado, adoptado en sesión de 14 de diciembre de 2007. (BOG nº 113 de 13 de junio de 2008).
- 5 Acuerdo del Consejo de Diputados por el que se regula y establece una ayuda económica complementaria a las prestaciones inferiores al Salario Mínimo Interprofesional. (BOG nº 120 de 24 de junio de 2008).
- 6 **DECRETO FORAL 61/2008**, de 24 de junio, de modificación del Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral. (BOG nº 121 de 25 de junio de 2008).
- 7 **ORDEN FORAL 577/2008**, de 24 de junio, por la que se aprueban las modalidades de presentación de las autoliquidaciones del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes correspondiente a establecimientos permanentes, los modelos 200, 220, 20G y 22G para su presentación, el modelo 20C del recurso cameral permanente correspondiente a los citados Impuestos, los diseños físicos y lógicos de los modelos 200 y 220, y la forma de ingreso, plazo y los lugares de presentación. (BOG nº 121 de 25 de junio de 2008).

- 8** Ogasun eta Finantza Departamentuko 2008ko Zerga Egiatzapenerako Planaren irizpide orokorrak. (129 zk.ko GAO, 2008ko uztailaren 7koa).
- 9** Uztailaren 9ko **3/2008 FORU ARAUA**, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena. (133 zk.ko GAO, 2008ko uztailaren 11koa).
- 10** Uztailaren 15eko **64/2008 FORU DEKRETUA**, zentsu betebeharrak eta identifikazio fiskaleko zenbakiari dagozkionak garatzen dituena. (136 zk.ko GAO, 2008ko uztailaren 16koa).
- 11** Uztailaren 15ko **640/2008 FORU AGINDUA**, pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen identifikazio fiskaleko zenbakiaren osaerari buruzkoa. (136 zk.ko GAO, 2008ko uztailaren 16koa).
- 12** Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzeta hitzarmena. (149 zk.ko GAO, 2008ko abuztuaren 6koa).
- 13** 2008ko irailaren 9ko **70/2008 FORU DEKRETUA**, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren arautegia onartzekoa. (177 zk.ko GAO, 2008ko irailaren 16koa).
- 14** **39/2008 EBAZPENA**, 2008ko irailaren 10ekoa, 2007ko abuztuaren 865/07 Foru Aginduak digitalizazio softwarea homologatzeko jasotzen duen prozedurari buruzkoa. (179 zk.ko GAO, 2008ko irailaren 18koa).
- 15** 2008ko ekainaren 24ko Diputatuen Kontseiluko erabakien laburpena. Teknikari programa antolatu eta gauzatzeko aholkularitza zerbitzuen kontratazioa espedientea onartzen da; programa horren bidez Gipuzkoako udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuei aholkularitza eskaintzen zaie. (179 zk.ko GAO, 2008ko irailaren 18koa).
- 16** 2008ko uztailaren 1eko Diputatuen Kontseiluko erabakien laburpena. Hondartzetan sorospen zerbitzuak emateagatik itsas ondoko herrietako udalei laguntzak emateko 2008. urteari dagokion deialdia. (179 zk.ko GAO, 2008ko irailaren 18koa).
- 17** 2008ko uztailaren 8ko Diputatuen Kontseiluko erabakien laburpena. Onartzen da erabaki honen
- 8** Criterios Generales del Plan de Comprobación Tributaria para el año 2008 del Departamento de Hacienda y Finanzas. (BOG nº 129 de 7 de julio de 2008).
- 9** **NORMA FORAL 3/2008**, de 9 de julio, por la que se aprueban medidas fiscales para incentivar la actividad económica, de adaptación del Impuesto de Sociedades a la reforma contable y otras medidas tributarias. (BOG nº 133 de 11 de julio de 2008).
- 10** **DECRETO FORAL 64/2008**, de 15 de julio, por el que se desarrollan las obligaciones censales y las relativas al número de identificación fiscal. (BOG nº 136 de 16 de julio de 2008).
- 11** **ORDEN FORAL 640/2008**, de 15 de julio, por la que se regula la composición del número de identificación fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica (BOG nº 136 de 16 de julio de 2008).
- 12** Convenio de Colaboración entre el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa. (BOG nº 149 de 6 de agosto de 2008).
- 13** **DECRETO FORAL 70/2008**, de 9 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa. (BOG nº 177 de 16 de septiembre de 2008).
- 14** **RESOLUCIÓN 39/2008** de 10 de setiembre de 2008, sobre procedimiento para la homologación de software de digitalización contemplado en la Orden Foral 865/2007, de 2 de agosto. (BOG nº 179 de 18 de septiembre de 2008).
- 15** Extracto acuerdos del Consejo de Diputados de 24 de junio de 2008. Se aprueba el expediente para la contratación de los servicios de consultoría para el programa Teknikari, por el que se ofrece asistencia a los servicios de euskera de diferentes municipios y mancomunidades de Gipuzkoa. (BOG nº 179 de 18 de septiembre de 2008).
- 16** Extracto acuerdos del Consejo de Diputados de 1 de julio de 2008. Se aprueba la convocatoria pública correspondiente al ejercicio 2008 de ayudas a los municipios costeros de Gipuzkoa por la prestación del servicio de salvamento en sus playas. (BOG nº 179 de 18 de septiembre de 2008).
- 17** Extracto acuerdos del Consejo de Diputados de 8 de julio de 2008. Se aprueban las bases reguladoras

amaieran jasotzen diren oinarri arautzaileak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerriei diru laguntzak emateko, alde batetik, hirigintzako udal plangintzako tresnak idatzi eta prestatzeko gastuak finantzatzeko eta, bestetik, udalerriko eremu hondatuen inbentarioak eta horiek lehengoratzeko esku hartze programak egiteko gastuak finantzatzeko.

(180 zk.ko GAO, 2008ko irailaren 19koa).

18 2008ko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainaldiaren buruzko iragarkia.

(182 zk.ko GAO, 2008ko irailaren 23koa).

19 Jendaurrean jartzeko iragarkia, hainbat udalerritako ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzien aldatetari buruzkoa.

(185 zk.ko GAO, 2008ko irailaren 26koa).

20 **EBAZPENA**, 2008ko irailaren 16koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkararena 2009rako Gipuzkoan tokiko festak izango diren egunak ezartzen dituen.

(186 zk.ko GAO, 2008ko irailaren 29koa).

para el otorgamiento de subvenciones a los municipios de menos de 7.000 habitantes del Territorio Histórico de Gipuzkoa, destinadas a financiar los gastos derivados de la redacción y elaboración de instrumentos urbanísticos de planeamiento municipal, así como inventarios de zonas degradadas del término municipal y programas de intervención para la regeneración de las mismas.

(BOG nº 180 de 19 de septiembre de 2008).

18 Anuncio de Cobranza del Impuesto sobre Actividades Económicas del año 2008.

(BOG nº 182 de 23 de septiembre de 2008).

19 Anuncio de la exposición pública de la modificación de las ponencias de los valores del suelo y de las construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana de los municipios que se citan.


(BOG nº 185 de 26 de septiembre de 2008).

20 **RESOLUCION** de 16 de setiembre de 2008 de la Delegada Territorial en Gipuzkoa del Departamento de Justicia Empleo y Seguridad Social, por la que se aprueba la determinación de las fiestas locales del territorio de Gipuzkoa para el año 2009.

(BOG nº 186 de 29 de septiembre de 2008).

6

*Kontsultak eta
ebazpenak*



GAIA: HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

Heriotza baten ondorioz sortutako eskualdaketetan, Hiri-lurren Balioen Gehikuntzaren gaineko Zergaren sortzapen eguna kausatzailea hil zen egun bera da, eta ez du horrekin inolako zerikusirik oinordetza onartu edo esleitu zen datak.

EBATZI DUEN ORGANOA: *Gipuzkoako Foru-Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa. 2007ko irailaren 27a*

• Zuzenbidezko oinarriak

BIGARRENA.- Aurrekariak aztertuta ondorioztatu daiteke erreklamazio honetan *****ko Udaleko Alkatetzak 2007ko martxoaren 30ean onartutako 287 Dekretua inpugnatzen dela; hain zuzen ere 2007ko 40. ordainagiri zenbakia zuen Hiri-lurren Balioen Gehikuntzaren gaineko Zerga zela-eta egindako likidazioaren kontra aurkeztutako berraztertze errekurtsioa ezetsi zuena.

HIRUGARRENA.- Espediente administratiboa arakatuta antzeman daiteke, ****ko Udalak, gure kasuan aztertzen ari garen Hiri-lurren Balioen Gehikuntzaren gaineko Zerga zela-eta egindako lehen egintza honakoa izan zela: auzijartzaileari ohar bat bidali zitzaion Udaletik, esanez pertsona hil ondoren, 6 hilabeteko epea zuela zegokion dokumentazioa aurkeztu eta aipatutako zerga likidatzeaz gain, hilerriko urteko mantentasa ordaintzeko. 2006ko urriaren 19an, auzijartzaileak inpugnazioa aurkeztu zuen idatziz, eta bertan adierazi zuen, errekerimendu hori bidegabekoa zela. Inpugnazio hori urte bereko urriaren 24an ezetsi zuen Udalak, eta auzijartzaileak erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zuen ezespren horren aurka. Erreklamazio hori, 2007ko otsailaren 13an ez zen tramitera onartu, ez baitzen egintza inpugnagarria.

Aipatutako Hiri-lurren balioen gehikuntzaren gaineko Zerga dela-eta egindako likidazioari 2007ko 40 ordainagiri zenbakia duenari buruz, ***** jauna 2006ko ekainaren 4an hil zenean sortu zen herentziaren eskualdaketa zergapetzen du, baita *****n kokatutako etxebizitzaren eskualdaketa ere. 2007ko otsailaren 22an egindako eskualdaketa horretan, auzijartzaileari etxebizitzaren titularitatearen %100 egozten zaio, eta beraz, 188,03 euroko kuota ordaindu behar du. Likidazio hori auzijartzaileari berari jakinarazi zitzaion 2007ko martxoaren 1ean.

2007ko martxoaren 29an aipatutako berraztertze errekurtsioa jarri zen likidazio horren kontra, eta bertan, auzijartzaileak instantzia honetan emandako antzeko argumentuak aipatu zituen. Berraztertze errekurtsio hori ****ko Udalak 2007ko martxoaren 30ean onartutako 287 Dekretuaren bidez ezetsi zen. Dekretu horre-

tan zehazten zen zerga kausatzailea hiltzen den egunean sortzen dela, eta pertsona horrek uzten duen herentzia subjektu pasiboa izan daitekeela. Titulartasunari buruz, Udalak aipatu zuen auzijartzaileak ez zuela bere alegazioak frogatzen zituen dokumentu bat ere aurkeztu.

LAUGARRENA.- Erreklamazio honetan, auzijartzaileak adierazi du ez dela eskualdaketarik egon, eta ondorioz, hori izango litzatekeela zerga-gaia Hiri-lurren Balioen Gehikuntzaren gaineko Zergan.

Auzi hori argitzeko, zerga horren araudira jo behar dugu, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 1.1 artikulura. Bertan xedatzen da Zergak lurrek duten balio gehikuntza zergapetzen duela, agerian jartzen denean haien jabetza edozein tituluz eskualdatu dela-eta edo aipatutako lurren gainean jabaria mugatzen duen gozameneko ondasun edozein eskubide eratu edo eskualdatu dela.

31. artikulua xedatzen du Zergaren subjektu pasiboa izango dela lurra eskualdatzean edo jabaria mugatzen duen gozameneko ondasun eskubideak ordainik gabe eratu edo eskualdatzean, lurra erosten duen pertsona fisikoa edo Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikuluan 3 apartatuan aipatutako entitatea, edo dena delako ondasun eskubidea haren alde eratu edo eskualdatzen zaion pertsona. Aipatutako 2/2005 Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrek, 35.3 artikuluan aipatzen du hala ezartzen den foru arauetan, zergapekatzen hartuko direla herentzia banatu gabeak, ondasun-komunitateak, eta, nortasun juridikorik izan gabe, zergapetu daitekeen unitate ekonomikoa edo ondare berezitua osatzen duten gainerako entitateak.

Bestalde, aipatutako 16/1989 Foru Arauko 6.1 artikulua xedatzen du zerga honela sortuko dela: a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, ordain truke izan edo doan izan, bizien artean edo heriotza dela-eta, eskualdaketaren egunean. b) Jabaria mugatzen duen gozameneko edozein ondasun eskubide eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketaren egunean.

Xedapen horiek ikusita, auzijartzaileak adierazi du pertsona bat hiltzeagatik bakarrik ez dela eskualdake-

tarik gertatzen, eta ez bada eskualdaketarik gertatzen, ez dela zerga sortzen. Hala ere, Auzitegi honen ustez, argumentu horrek ez dauka sendotasunik. Izan ere, pertsona bat hiltzen denean, hark zituen ondasun guztiak jaberik gabe geratuko lirateke eskualdaketa gertatu arte, eta hori, justizia auzitegi askok behin eta berriz esan duten bezala, gure legislazio zibilean xedatutakoaren aurka doa, orain azalduko ditugun arrazoiak direla eta.

BOSGARRENA.- Lehen esan dugun bezala, ondare-aldaketa bat gertatzean agerian jarri diren gainbalioen gaineko ezarpena da kasu hau, eta ondare-aldaketa hori emantzat jo behar den zehazteko, Kode Zibilak oinordetza eskuratzeari eta oinordetza-banaketaren izaerari buruz xedatutako araudira jo behar dugu.

Xehetasun handirik eman gabe, Kode Zibileko 657, 661 eta 989 artikuluek, hurrenez hurren, xedatzen dute «persona baten ondorengotza-eskubideak hau hiltzen den momentutik aurrera eskualdatzen dira» - Kode Zibilak ez die ondorengotza-eskubide guztiei erreferentzia egiten, baizik eta eskubide horien alde objektiboari; hau da, herentziari berari; «oinordekoek, kausatzailea hiltzeagatik bakarrik, haren eskubide eta obligazio guztiak eskuratuko dituzte» eta «herentziaren onarpenaren ondorioak kausatzailea hiltzen den egunean hasien direnez, ulertu behar da eskurapen kausatzailea hiltzerakoan gertatu dela», bezalako xedapenak ikusita, ondorioztatzen da legislazioak hiru oinarrizko sistema jasotzen dituela herentzia antolatzeako: kausatzailearen heriotzara baldintzatuta dagoena; aurkakoa, herentzia onartzeari lotuta dagoena; eta azkena, mistoa, herentzia eskualdatzeko hura onartu behar da, baina horrek kausatzailearen heriotza egunera eramaten ditu oinordekoak. Espainian hirugarren sistema edo eredu dago indarrean. Baina errealitate horrek, hainbat oinordeko badaude behintzat, hau esan nahi du: herentzia era kolektiboan eskuratuko dutela, eta zatiezintasun egoera hori, eta ondorioz, haien eskubideen zehaztugabetasuna ez dela amaituko herentzia banatu arte. Legalki egindako herentziaren banaketak, Kode Zibileko 1068 artikuluek xedatutakoaren arabera «oinordeko bakoitza esleitu zaizkion ondasunen jabe bakarra izango da». Hori guztia auzi honetan aztertzen ari garen zergaren egintza zergagarriarekin lotzen badugu, nahiz eta banaketari zuzenbidearen egozpen-izaera onartu edo bestela izaera deklaratu, determinatzaile edo murrizgarria eman, argi dago kasu hau ezin dela oinordetzaren eskuraketa burutu zenetik kanpo dagoen eskualdaketatzat jo. Ondorioz, esan behar dugu, aipatutako eskualdaketa hori zatiezintasun edo komunitate egoerari amaiera ematen dion oinordetza-prozesuaren azken pausotzat jotzen da, baina ez kasu honetan aztertzen ari garen Zergaren egintza zergagarritzat jo daitekeen ondare-aldaketa gisa.

Beste hitzetan esanda, oinordetza banaketan ondare batzuk esleitzea oinordetzaren banaketak dakartzan

eskubideak zehazteko mekanismoaren barne dauden eragiketetako bat da, baina ez da kausatzailea hil zen momentutik aurrera indarrean jarri zen oinordetza-banaketa prozesutik kanpo egon daitekeen eragiketa bat, ezta eskualdaketa ezberdin bat ere. Ondorioz, eskubide zehaztugabe bat banakako eskubidean edo zerga-obligazio bat sorrarazten duen berezko eta benetako eskualdaketan bihurtzen dugunean, analogiaz eta arauaren baldintza zehaztatetik kanpo egintza zergagarriaren esparrua zabaltzea izango litzateke, eta hori indarrean dagoen Zergen Foru Arau Orokorreko 13. artikuluan xedatutakoaren aurka doa. Ondorioz, egintza zergagarria kausatzailea hil zen egunean sortu zela esan behar dugu.

SEIGARRENA.- Aipatu berri dugunari lotuta, Hiri-lurren Balioen Gehikuntzaren gaineko Zerga noiz sortu zen dakigu. Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren arabera (besteak beste 1993ko urtarrilaren 22an, 1994ko abenduaren 5ean eta 1995eko urriaren 7an emandako epaietan), zergaren sortzapena "Zergapetutako lursaila eskualdatzen den egunetik aurrera izango, baldin eta egun hori kausatzailea hil zen egun bera bada, eta Kode Zibileko 657, 661 eta 989. artikuluei jarraiki, baldin eta onarpen, inbentario, ebaluazio eta banaketa egintza guztiak eskualdatzaileak ez badira, baizik eta azalpen izaera bakarrik badute". Doktrina hori 1995eko otsailaren 27an eta maiatzaren 16an emandako epaietan berresten da. Izan ere, Kode Zibileko 657 eta 661. artikuluetan aipatzen da "persona baten ondorengotza eskubideak hura hiltzen den momentutik aurrera eskualdatzen dira" eta "oinordekoek hildakoaren eskubide eta betebeharrak guztiak jasotzen" dituztela, baita "oinordetza-eskualdaketetan, sortzapen momentua kausatzailearen heriotzaren eguna" dela. Beraz, inola ere ezin da onartu sortzapen eguntzat oinordetza ondareen banaketa edo esleipen eguna. Izan ere, banaketa hainbat oinordeko dauden oinordetza-prozesuari amaiera ematen dion momentua da, eta hain zuzen ere, prozesuaren helburua banaketa da, kausatzailea hil zen momentuan sortutako ondarea banatu eta oinordeko bakoitzari banakako kuota zatiezina emateko. 1996ko irailaren 30ean eta azaroaren 30ean ere, Auzitegi Gorenak aipatu zuen, heriotza baten ondorioz sortutako eskualdaketetan, Hiri-lurren Balioen Gehikuntzaren gaineko Zergaren sortzapen eguna kausatzailea hil zen egun bera dela, eta ez duela horrekin inolako zerikusirik oinordetza onartu edo esleitu zen datak. Horrez gain, Justiziako Auzitegi Goren pila batek doktrina horren araberrako epaiak eman dituzte.

Beraz, doktrina jurisprudenzial bat zehaztuta dago. Horren arabera, zerga kausatzailea hil den egun berean sortzen da, eta berdin dio noiz onartzen eta esleitzen den oinordetza hori, ez baitauka zergarekin zerikusirik.

ZAZPIGARRENA.- Subjektu pasiboari dagokionez, argi dago zerga kausatzailea hiltzean sortzen bada, subjek-

tu pasiboak pertsona horren oinordekoak izango dira, bai testatzaileak hala eskatuta, edo legeak horrela agintzen duelako. Herentzia banatu ez bada, esan behar dugu banatu gabeko herentzia baten aurrean gaudela, eta lehen aipatu dugun Zergen Foru Arau Orokorreko 35.3. artikuluan oinordekoak subjektu pasibo gisa xedatzen direla, baita 16/1989 Foru Arauan ematen den definizioan ere.

Horrela, ondorioztatu behar dugu, auzijartzailea, banatu gabeko herentziaren elkarkide denez, aztertzen ari garen zergako subjektu pasiboa dela, eta banatu gabeko herentzia horretan nortasun juridikorik ez duenez, esan behar dugu Zerga-Administrazioa oinordeko guztiei edo oinordeko bakar bati zuzendu daitekeela, Zergen Foru Arau Orokorreko 35.5 artikulua xedatzen duen erantzukizun solidarioaren kasu batean baitaude.

Ildo horretan 1999ko apirilaren 30ean Gaztela-Leongo Justiziako Auzitegi Nagusiak (Burgos) emandako epaia dago, baita 2002ko martxoaren 6an Kataluniako Justiziako Auzitegi Nagusiak emandako epaia ere. Bertan zehazten da "1995eko urtarrilaren 27an kausatzailea hil eta zerga sortu ondoren, administrazioaren isiltasunagatik ezarritako luzapena indarrean zegoela, zergaren ondorioz ordaindu beharreko kuotaren autolikidazio eta ordainketa epea 1996ko urtarrilaren 27an amaitzen zen. Berdin dio oinordetzaren banaketa noiz egin zen, datu hori ez baita beharrezkoa zerga sortzeko edo subjektu pasiboa zein den zehazteko (kasuaren arabera, oinordeko guztiak edo banatu gabeko herentzia izango dira)." Horrez gain, aipatu behar dugu, 2000ko urriaren 28an Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren arabera, zerga kausatzailearen heriotzarekin batera sortu zenez, auzijartzaileak

zerga horrek ezarritako baldintzak betetzeko obligazioa zuela, horien artean Udalari likidazioa egin ahal izateko datuak ematea, hala edozein zerga iruzur saihesteko eta Udalak kasu bakoitzean ordenamendu juridikoak zehaztutako baldintza eta baliabideen bidez legeko zergabilketa egiteko, ezin baita berandutzearen egoera oinordekoen eskura utzi.

Azkenik, ondasunaren izaera pribatibo edo irabazikolari dagokionez, kontuan hartu behar da, Udalak jakinarazpen bat bidali zuen arren, ez dela inon jaso auzijartzaileak eragiketa horri buruzko dokumenturik aurkeztu zuenik. Beraz, Udalak eskura zituen datuen arabera; hau da, ondasun horren gaineko zergen errolden arabera jokatzeko badu, esan behar dugu zuzen jokatu duela, eta aldi berean, horrek ez duela eragozten onartutako edozein frogabide erabiliz ondasun horren benetako izaera frogatzea, nahiz eta kasu honetan gertatu ez den.

Hori guztia dela eta, bidezkoa da ematea honako

• Ebazpena

AUZITEGI HONEK, Zerga Itunduen Erreklamazio Aretoran dokumentu hasieran azaltzen diren data eta kideekin eginiko bileran, erabaki du EZESTEIA ***** andereak, ***** zenbakidun nortasun agiria duenak, jarritako 2007/0298 zenbakidun erreklamazioa. Beraz, *****ko Udaleko Alkatetzak 2007ko martxoaren 30ean emandako 287 Dekretua berresten da, baita horren ondorioz, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren ondorioz egindako likidazioa ere, 2007ko 40. zenbakidun ordainagiriari dagokiona.

CONSULTA: CONCESIÓN DEMANIAL DE PLAZAS DE GARAJE

ÓRGANO QUE RESUELVE: Departamento de Hacienda y Finanzas

FECHA DE PUBLICACIÓN: 17 DE ENERO DE 2008

Consulta:

El Ayuntamiento del municipio "X" aprueba INICIALMENTE un Pliego de Condiciones por el que se regulaba las condiciones de la contratación de la construcción y de la subsiguiente explotación de las instalaciones del servicio de estacionamiento subterráneo para vehículos ligeros en el área Deportiva del citado municipio.

Sin embargo, el concurso de Construcción y Explotación DEL SERVICIO queda desierto, ya que ninguna empresa constructora participa en la licitación.

Ante esta circunstancia el Pleno del Ayuntamiento, aprueba el Pliego de Condiciones a regir en la concesión demanial de plazas de garaje en el estacionamiento subterráneo para vehículos en el subsuelo del ÁREA DEPORTIVA. Los licitadores podrían ser todas aquellas personas que dispusieran inexcusablemente de un vehículo, tener la condi-

ción de residente en el municipio "X" o trabajar en el mismo.

Dicho expediente tenía y tiene por objeto la contratación de la concesión demanial de plazas de garaje.

El bien objeto de la presente consulta tributaria es un bien de Dominio Público, tal y como figura en el inventario municipal conforme a lo dispuesto en las normas de carácter urbanísticos que regulan la ordenación del suelo del término municipal. De conformidad con lo establecido en el artículo 78.1 del RB, estará sujeto a concesión administrativa el uso privativo de los bienes de dominio público, así como, el uso anormal de los mismos. El otorgamiento de las concesiones sobre bienes de dominio público se efectuará en régimen de concurrencia. Las concesiones se otorgarán por tiempo determinado, no pudiendo exceder de setenta y cinco años (art. 93.3).

La normativa actual establece que las concesiones de uso privativo o aprovechamiento especial del dominio público podrán ser gratuitas, otorgarse con contra prestación o condición o estar sujetas a la tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial de bienes del dominio público.

Tal y como esta configurada la concesión actual, la utilización privativa o aprovechamiento especial de bienes de dominio público no lleva aparejada una utilidad económica para el concesionario, o, aun existiendo dicha utilidad, la utilización o aprovechamiento entrañe condiciones o contraprestaciones para el beneficiario que anulen o hagan irrelevante aquélla; en consecuencia no, estará sujeta a tasa, tal y como se establece en las normas reguladoras.

El titular de una concesión dispone de un derecho real sobre las obras, construcciones e instalaciones fijas que haya construido para el ejercicio de la actividad autorizada por el título de la concesión (art. 97); título que otorga a su titular, durante el plazo de validez de la concesión, los derechos y obligaciones del propietario.

Se desea saber el RÉGIMEN TRIBUTARIO que debe aplicarse a la transmisión de una concesión demanial de plazas de garaje en un estacionamiento subterráneo para vehículos en el subsuelo de un bien de dominio público DESTINADO a todas aquellas personas que dispusieran inexcusablemente de un vehículo y tengan la condición de residente en el municipio "X" o trabajar en el mismo

• Respuesta

De acuerdo con el artículo 4.uno del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, por el que se adapta la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, estarán sujetas al Impuesto las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas en el ámbito espacial del Impuesto por empresarios o profesionales a

título oneroso, con carácter habitual u ocasional, en el desarrollo de su actividad empresarial o profesional, incluso si se efectúan en favor de los propios socios, asociados, miembros o partícipes de las entidades que las realicen.

El artículo 5º, apartado dos del mismo Decreto Foral, dispone que "son actividades empresariales o profesionales las que impliquen la ordenación por cuenta propia de factores de producción materiales y humanos o de uno de ellos, con la finalidad de intervenir en la producción o distribución de bienes o servicios".

Por otra parte, el apartado uno del ya citado artículo 5º, contiene una definición propia y específica del concepto de empresario o profesional, considerando como tales a los efectos de dicho impuesto, entre otros a "quienes realicen una o varias entregas de bienes o prestaciones de servicios que supongan la explotación de un bien corporal o incorporeal con el fin de obtener ingresos continuados en el tiempo y, en particular, los arrendadores de bienes".

Los preceptos anteriores son de aplicación general y, por tanto, también a los entes públicos que, consecuentemente tendrán la condición de empresarios a efectos del IVA cuando ordenen un conjunto de medios personales y materiales, con independencia y bajo su responsabilidad, para desarrollar una actividad empresarial mediante la realización continuada de entregas o prestación de servicios, asumiendo el riesgo y ventura que pueda producirse en el desarrollo de tal actividad, así como cuando realicen arrendamientos de bienes o cesiones de derechos con el fin de obtener ingresos continuados en el tiempo.

El artículo 11 establece el concepto de prestación de servicios señalando en su apartado dos, números 2º y 3º, que en particular se considerarán como tales:

"2.º Los arrendamientos de bienes, industria o negocio, empresas o establecimientos mercantiles, con o sin opción de compra.

3.º Las cesiones del uso o disfrute de bienes."

Por otro lado, el artículo 7, números 8 y 9 del Decreto Foral 102/1992 determinan que no están sujetas las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas directamente por los entes públicos sin contraprestación o mediante contraprestación de naturaleza tributaria, ni las concesiones y autorizaciones administrativas con la excepción de las indicadas en el citado número 9.

Para finalizar el examen de la cuestión suscitada debe aludirse a la posibilidad expresamente consignada en el escrito de la consulta de utilizar la figura de la concesión administrativa para la cesión del derecho a la utilización exclusiva de una plaza de garaje concreta por tiempo determinado.

A este respecto, procede señalar que el artículo 13 de la Directiva 2006/112/CE del Consejo, de 28 de noviembre de

2006, relativa al sistema común del impuesto sobre el valor añadido establece:

“1. Los Estados, las regiones, las provincias, los municipios y los demás organismos de Derecho público no tendrán la condición de sujetos pasivos en cuanto a las actividades u operaciones en las que actúen como autoridades públicas, ni siquiera en el caso de que con motivo de tales actividades u operaciones perciban derechos, rentas, cotizaciones o retribuciones.

No obstante, cuando efectúen tales actividades u operaciones deberán ser considerados sujetos pasivos en cuanto a dichas actividades u operaciones, en la medida en que el hecho de no considerarlos sujetos pasivos lleve a distorsiones significativas de la competencia.

En cualquier caso, los organismos de Derecho público tendrán la condición de sujetos pasivos en relación con las actividades que figuran en el anexo I, excepto cuando el volumen de éstas sea insignificante.

2. Los Estados miembros podrán considerar como actividades en las que actúen como autoridades públicas las actividades de los organismos de Derecho público que estén exentas en virtud de los artículos 132, 135, 136, 371, 374 a 377, 378, apartado 2, 379, apartado 2, y 380 a 390.”

Asimismo es preciso observar que el referido supuesto de no sujeción dispuesto en el artículo 7º resulta aplicable al otorgamiento de concesiones o autorizaciones administrativas por los entes públicos que la efectúen, por no considerarse realizadas en el desarrollo de una actividad empresarial o profesional. La operación planteada por el consul-

tante consistente en proporcionar servicios de aparcamiento a residentes del municipio “X”, en la que la contraprestación percibida por el Ayuntamiento lo sería por la prestación de dichos servicios de aparcamiento, no puede calificarse como contratos de gestión de servicios públicos ni tampoco como concesión administrativa de dominio público.

A la citada conclusión debe llegarse a la vista de los preceptos mencionados, apoyados, en la verdadera naturaleza de la operación planteada, consistente en proporcionar servicios de aparcamiento a cambio de una contraprestación, adquiriendo el consultante, Ayuntamiento del municipio “X”, la condición de empresario o profesional a efectos del IVA por la cesión de dichos aparcamientos de forma continuada en el tiempo.

En consecuencia y habida cuenta de que el hecho de no gravarlos pueda producir distorsiones graves de la competencia, no será de aplicación el supuesto de no sujeción contemplado en el artículo 7.º del Decreto Foral 102/1992, a los contratos en virtud de los cuales el Ayuntamiento del municipio “X” cede a residentes del citado municipio el derecho a la utilización de una plaza de garaje durante el período de vigencia de los mismos y, el Ayuntamiento, en virtud del artículo 88 del Decreto Foral 102/1992, estará obligado a repercutir el Impuesto sobre el Valor Añadido que grava la citada prestación de servicios sujeta y no exenta de dicho impuesto, mediante la expedición y entrega de las correspondientes facturas

Lo que se le comunica para su conocimiento y efectos oportunos.

GAIA: ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO TASA

Establezimenduak irekitzeko Baimenaren tasa ordaintzetik salbuestea onartzeko ezarrita dagoen oinarritzko egintzaren suposamendurik ez dagoenez, ez baita frogatu kasu honetan ustez ezinbesteko eraispenaren aurrean gaudenik, ez da egokia lortu nahi den salbuespena ematea.

EBATZI DUEN ORGANOA: Gipuzkoako Foru-Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa. 2006ko azaroaren 29a.

• Zuzenbidezko oinarriak

BIGARRENA.- Aurrekariak aztertuta, ondorioztatzen da erreklamazio honetan aurka egiten zaiola *****
***ko Udaleko Alkateak 2005eko abenduaren 2an emandako Dekretuari. Aipatutako dekretuaren bidez, udalerrri horretan egiten den jarduera bati dagokion

Establezimenduak irekitzeko Baimenaren tasagatik ordaindutako kuota itzultzeari ezetza ematearen aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezetsi egin zen.

HIRUGARRENA.- Espediente administratibotik ondorioztatzen denez, alderdi erreklamaziogileak 629 euro ordaindu zituen 2004ko abenduaren 2an, *****

****ko Udaleko Zergabilketako bulegoan, udalerrri horretako ***** kalean kokatuta dagoen lokala irekitzeko baimenaren tasagatik egin beharreko autolikidazioa zela-eta. Geroago, 2005eko urtarrilaren 14an, ordaindutako kopurua itzultzea eskatu zuen, Establezimenduak irekitzeko Baimenaren tasa ordaintzetik salbuetsita zegoela uste zuelako; izan ere, jarduera lekualdatzeko arrazoa zen lehen jarduera egiten zueneko eraikina laster eraitsi behar zela.

Behar ziren txostenak eskatu eta eman ondoren, aipatutako eskaera ezetsia izan zen *****ko Udaleko Alkatetzak 2005eko apirilaren 21ean emandako Dekretuaren bidez. Ezestearen arrazoa izan zen lehengo establezimendua hustu zen datan eraisteko agindurik ez zegoela, ezta eraikina eraisteko eperik eta horrek eragin litzakeen kalte-ordainak zehazten zituen hirigintzako dokumenturik ere.

Dekretu horri aurka egin zitzaion 2005eko uztailaren 19an aurkeztutako berraztertze errekurtsoaren bidez, eta errekurtso hori ezetsia izan zen, hain zuzen ere Alkatetzak 2005eko abenduaren 2an emandako Dekretuaren bitartez. Hala ere, horren aurretik, erreklamaziogileak instantzia honetara jo zuen, 2005eko azaroaren 14an, bere errekurtsoari isilbidezko ezespera eman zitzaiola ulertu zuelako, ebazpena emateko ezarritako hilabeteko epea agortua baitzen.

LAUGARRENA.- Erreklamazio honetan eztabaidatzen den gaiari dagokionez, argitu behar dugu egokia den ala ez hemen aztertzen ari garen egoeran azaldu dugun suposamendua ezartzea, hau da: erreklamaziogilea, bere jarduera lokal berri batera aldatu zuela-eta, Establezimenduak irekitzeko Baimenaren tasa ordaintzetik salbuetsi behar den. Izan ere, salbuespena nahitaezko eraispenaren ondoriozko lekualdaketarekin lotu egin da.

Lehendabizi, kasuari ezar dakiokkeen araudia aztertuz gero, argi dago alderdi erreklamaziogileak ordaindutako tasa araututa dagoela *****ko Udalaren 6. Ordenantza Fiskalaren bidez. Horri jarraituz, 7. Tasari hainbat hirigintzako lizentzia dagozkio, haien artean 4. multzoko tarifak daudelarik, "establezimenduak irekitzea" kontzeptuan. Erreklamaziogileari ezarri beharreko ekitaldian, zehazki, merkataritza- eta zerbitzu-lokal bat irekitzeagatik 629 euro ordaindu behar ziren. Araudi horrek, 4. atalean, hainbat salbuespen ezartzen ditu, eta 4.2 azpiataleko salbuespenak, hain zuzen ere, 4. tarifari dagozkio. Zehazki, b) letran jasotzen da establezimenduak irekitzea tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dela eraikina ezinbestez eraitsi behar denean, behera etorri denean, sutea gertatu denean eta agindu eta xedapen ofizialetan egiaztatzen diren kasuetan, betiere titularrak lehengo establezimendua uzteagatik inongo kalte-ordainik jaso ez badu.

